

Herrialde guzietan toki onak badira;  
Bainan bihotzak dio: zozu Eskual-Herrira

# ESKUALDUNA

JOURNAL BASQUE-FRANÇAIS HEBDOMADAIRE

## ABONNEMENTS

Pays Basque.....	4 fr. par an.
France .....	8 fr. —
Étranger .....	10 fr. —

## REDACTION ET ADMINISTRATION

69, Rue Bourneuf — BAYONNE — Téléphone 2.20

L'Administration décline toute responsabilité en ce qui concerne les annonces.

Eskualdunak eztu on egiten hemen agertu « annonces » direlakoez.

## PUBLICITÉ

Chronique locale .....	1 fr. » la ligne
Réclame .....	0 fr. 60 —
Annonces .....	0 fr. 40 —

Les inserciones ne sont admises que sous réserves

## PRESUNERAK

Egundainotik ezagutua dena da, frantsesa etsai presunerentzat jendeago dela edo zoin jendakia baino — alemana baino, pentsa !

Hemen alemanek ez dute beharren diren gauzeturak deusere eskas; bederen jana, etzangia, bizitzeko eta osasunak galduzitzen dituen artha batezpadakoak baditzute; mainarik ez, bainan behar den guzia; moldegaizkeriarik, ez kolperik, ez larderia gaichetrik ez.

Gureak Alemanian tinta minta guzientzat, oren luzez arbola batzueri estekaturik eta nola nahi baitaungo — berek aithor — hemen ez dute hangoek holako deus jasaitzeko.

Alegia gure gizonen sakelako diruzas eta otozaz orhoit, emaiten diote, ez preso har eta berehala, bainan noizpeit, bakochari eguneko hunenbertze sos; hunenbertze aitzindari bakochari; hunenbertze soldadoari.

Guk hazten ditugu alemanak guzretik; heiek ez gureak berenekit. Alegia sosa eskura eman, eta gero emanaren doblea pagaraz behar dituztenak.

Presuner jateko, edateko, soineko eta oro heientzat irabazpide doazi. Eskas dutena jin-araz dezate-la Frantziatik, edo gabea sofri.

Berentzat ogirainokoak chuhurten hasiz geroz, ezta estonatzeko ere, zikhoozki baitio presuneret emaiten gosaez hiltzekoa; bainan, ausarkian zutenetik ere, goiz hasiak ziren zekhenki emaiten. Eta alabainan geroago eta zekenago.

Larderia bat nolakoa, guziz tokian! Gaichtaginik handienetzat bezalakoa.

Bana bertze omen garratzenik an-glesentzat. Desbardin, espres, elgarren jolas izan gitezten; gogoratu etzeienik ez baita, batzu bertzezin ahal bezenbat makur-arazteko, na-hasteko.

Zoazte jakitera, zinez miintzo diren, la gezurrez, derasatenean ru-soa tontoago dela, orotaz gibelago, hurriago, ez-azolago, garbitasunetik has; indar lan zerbeit ba, bainan eskuaire, begi ukaldi, atzartasun izpi bat galduzitzen duen lanik ez mana rusoari... diote alemanak.

Anglesak, nahi balu, omen lakike zer nahi lanetan; bainan etaia modu-natu behar; jite bihurria du; bere buruaz harria; behin eztet erran eta, ez hartan thematsua, dio bethi alemanak.

Hartakotz omen diozkate alemanek egiterat emaiten la ik idorenak, goihengarrienak. Hezi arte ez bar-kha; nahi badute eta ez badute, obe-ditu behar... edo pekatu.

Presuner leberenik, etzienik, ohartuenik eta jin errechenik edo zoin lanetara, diote alemanek, frantsesa dela.

Hala othe izaitz ala zaiote iduri othe ?

Ala da mintzo etsai gutaz hola, gogoaren kontra, faltsukeriaz? Jainkoak daki.

Behinik behin sinestea neke da, nehor munduan gu baino begieta-nago duela alemanak; nehor has-tioago gu baino. Ez eta gu bezenbat ere!

Gu zorriz bezala lehertu nahizko errabian zagolarik, jazzari baitzaio, gu baino lehen oraiko hundun hor, rusoa, baditate hartako duen higui-enenik. Bainan guri zen, guri frantses-eri, orotako lehenik aiher; ba eta guri geldituko etsai, azkenik ere.

Gu gitu, frantsesak, deitzen, aspal-diko urhetan, bere « erfeind », er-rena nahi baita : *sorlzetako etsai*.

Bertzeak, angles ala ruso, ala edo zoin, etsai dituzke behin edo behin, halu nola orai... Gu bethi; eta bethi bardin.

Bertzerik sinets bagineza, pello batzu ginitazke. Hori eztugu zeren ahantz, hola baita.

X

Presunerentzat gutaz bertzelako, alemanak, ez dire bakarrik solasetan, bainan egitate guzietan, jan-edan eta zerez bertzalde, gizonbasunean. Gi-zonkiago dautzute behatzet preso daukaten gizonari, alemanek baino, frantsesek, bana bertze, jendekiago, giriñostinokiago.

*Bana bertze-ka* behar da mintzatu holakoetan. Orotan orotarik badela, erran gabea; bainan populu bat osoa har, buruzagiak har, ehunetarik lauetan hogoi har, bertzeak utziz, populu bat urguluntzago da, krudelago da, bere buruaz hantuago da, bertzea baino; eta hor den guzieneko dudarik.

Arren zoin da munduan, aspaldiko demboran, jasan-gaitzago, zoin da oro zangopean ezarri nahiz okaztari-garriago eta bereziki presunerak es-klabokiago dauzkan, zoin, aleman den baino?

Euhan mila itzulika behar, letra batzen bere chedera heltzeko; ez haizu berririk igortza noizpeti arte; eta batere ez haizu, ez goiz ez berant, bizi direla etchekoerri heltzerat ere, guri kendu lurretan direno... Behar da hoin bihotz gabe izaiteko, aleman izan. Frantsesak ez luke arima hoin idorra.

Presunerak lanean bortzach araztako ere, kopeta gehiago du frantsesak baino alemanak. Gu bethi uzkur gaude, presuner bat es-klabo bezala erabilzearri. Jendeago gira Halako ahalge orhoragarri batek gauzka.

Hortaz beraz, bertzeak bertze, frantses presunerak Alemanian baino hobeki dire Frantziak aleman pre-sunerak.

## Berriak egunka

Aslezken, marzoaren 31an

Argonnen arroil-erreka zathi handi batzu hartzten diozagu etsaiari.

Gure chorri-gizonek Champañen Soissons hiriko aldean eta Beljikan obuz ukal-dika funditzen dituze burdin bidetako atherbe batzu, ba eta lantegi zonbeit, gerlako tresnategi eta bertze.

Itsasoz rusoa Bosphore delakoaren bereteko lana baderamate buruz.

Ortizun, apirilaren 1ean

Tokitan bethi aitzinatz goazi; bereziki Wævre delako eskuadorean bi herri gu-reto ditugu. Aireko tresna hetarik biga-zuak aralik-ari daizkotegi, eta puskatuak hartzten.

Ortizun, apirilaren 1ean

Argonnen arroil-erreka zathi handi batzu hartzten diozagu etsaiari.

Guk hazi gizonek Champañen Soissons hiriko aldean eta Beljikan obuz ukal-dika funditzen dituze burdin bidetako atherbe batzu, ba eta lantegi zonbeit, gerlako tresnategi eta bertze.

Itsasoz rusoa Bosphore delakoaren bereteko lana baderamate buruz.

Larumbat, 3an

Arroil-erreka luze bat jauz-arazi diote-gu dinamitaz, La Boisselle eta Dampierre deitihu bi tokien artean.

Berrekin bat presuner hartztu; heretik sei, aitzindariak.

Reims hiriaren gainetar bombe aurdikitzatzen omen zoan atzo tiroko eror-arazi duten aireko tresna. Lurreratzean su-lothurik, andeau da.

Gutitarik egin du barnean zituen bi gizonak ez baitire hancue suntsitu, erre. Zaurtueak, preso alitzatu ditugu.

Igande, 4an

Italiako aldean herriz herri, zokoz zoko dabiltza omen aleman batzu, harma zahar keta, hatzeman guziaz oro erosiz igortzeko Afrikarat, hango beltzen alitzatzeko Frantziaren kontra.

Ez uste, berak aski direla gure garhai-teko; lagunak nahi, eta nehor deus hanbat direnen ezin hatzeman.

Italiako poliza gizonak ondotik dituzte, baizik eta kontrabanda dela hori.

Joffre, gure soldado aitzindarien bu-

rugazi lehenak egin du Beljikan gaindiko joan in bat, hango armada tipiari bihotzaren alitzatzeko, behar zena egiteko chedaten. Ederki egin du joaitea.

Merezimendurik gehiena zuketenak sa-ristatu dituenean, berak bere eskuz bulhar-retan lothorik ezarri ohorezko medelak, bida eta errebiba, oihu onik entzun omen du, beljikano soldadoetarik.

Are gehiago, erran diotenean, ez di-tela lotsa; harek on egiten diotela etsia-ren garhaitzeaz; askok uste baino lehen kraskatuko ditugula, elgar lagunduz, alemanaren azken indarrak; frantses, angle-sen, rusoen, beljikano eta serbioaren batasun azkarra bururatuko duela gerla, luzamen handirik gabe; choilkoi aha-lik guitena gizon hilez guretarik, ari girela etsia-ren higaraztza; oraeskastu zaizkola giri a baino lehen, zeren ez dituen gure laguntzak, leihorrez eta itsasoz.

Astelehen 5ean

Atzo harto diotegu herri bat, Fay-en-Haye, iragan egutegi alpatzu herritik auzo, Régnewille deitihu. Egun ez da deus berriagorik, gure eskuadetan.

Rusoa dute hartzan ari esku-gain handia, oinez ala zaldiz, bereziki Carpathes mendietan. Presunerak noiz nahiz chunaka; herenengun kolpez bi mila.

Ara hartzan nekez du etsiai luzaiz iharduk ahalko; alde orotarat batean bu-ru egitea luzaz, ez baita errefrech.

Gu azkartu goazi, angles, frantses eta rusoa iraua araua; etsiai kontrarat ahu-duz.

Oro baino azkarrago zena bere ustez, izaitez banazka gu baino gehiago baitzen ere, hemendik harat azpitik daukau.

Lurpean sarthua ez balitz, kampaña luke ja Frantziatik. Lurretik ere beharko du, bala jali goiz edo berant.

Asteart, 6an

Bravo! Behin bederen bulhar guziz oihu dezagun egin, zuek eta nik, orok batean: Biba Alemanak!

Sei bapur, itsas unti handi kolpez jauz-arazi dituze; seiak itho; irets-arazi siak etsasoz.

Holako balentriarik etzuten oraino egin gerlaren hastekit hunat. Alta zonbeit unti badute oraikotz gal-arazirk, unti angles eta frantses.

Hoinbertze, sei batean eta seiak han-dietarik, hau berria dugu. Ikaisten ari zauzka lanean.

Berri huna dilindan luzaegi atchiki gabe, ordu da jakin-araz dezazuegu Alemanek beren unti zonbeitak. Alta zonbeit unti badute oraikotz gal-arazirk, unti angles eta frantses.

Hau dut erasial Gelditzen niz; luzegi banintz, laner nuke zonbeit zokhotan ahantzia egon dadien eñe letira.

Ikus artio. Jainkoak nahi duelarik! Zure adichikide.

Iholdyko jaun erretoaren iloba gerlaren hastapentsutik hunat preso da. Soldadozen, ez omonier, alemanek hartzut zutenean; lagun batzu bidean chutik etzauzenak erori rurerat, eta urrikar heiekin gibelerat gelditua etsaiek hatzemanik, preso hartzut eta eremant.

Aspaldi han da, presuner lagunen omioner bilhakatu, prusianoen baiarekin. Apeztasunari doazkon eginbide berzalde, asko laguntza batzueri eta berteri egin dago bospasei hilabetea huntan; bereziki han nonbeit galduak zirela-kotz berrikir igozten etzutenak, hil ala bizi, zer bilhakatuak zitazken, hatzema-teko.

Hala baten berri zerbeit jakin nahiz ikiriaztatu diogu eta ihardetsi du, ahal zuean, bihotz onez — ageri da — bainan galduzten gioniori garbitasun on gutikin, zorigaitze.

Huna igorri dauzun lerroetarak zen-bit; hain urrundanik jinak oro alitzatzeko direla etzautzua, irakurtzaleak?

Zossen hantan, oro ontsa gira; presuner basuentzat ez sobera urrikalgarri. Libertate heinto bat uzten daukute, ezta erron: *ba baino hertsikago denik bida hogoi-a bortz*. Kampamendu handi, zabal batear gira, harat hunat ibiltzera-hu.

Begiraleak ez ditugu gaichtoak.

Babel-eko dorre zelakoaren eite badu Zossen hunek. Lurraren baixeria guzietako jendea eta mintzietarik entzuten dugu eta ikusten. Egun guziez kurutzaten gira Jainko onak daki zonbat herrialdetako-ekin.

Dela aleman (erran gabe doa), dela angles, dela beljikano, dela ruso, dela canadiano, dela aljeriano, dela tunisiano, sudandar, indiar, eskualdun, ba eta haszparid; eta baitire azken hauk guti-erik atchikimendu merezi dutenak.

Goraintzi igozten dautzute; ontsa direla eta bethi herriaz orhoit.

Begiraleak ez ditugu gaichtoak.

Babel-eko dorre zelakoaren eite badu Zossen hunek. Lurraren baixeria guzietako jendea eta mintzietarik entzuten dugu eta ikusten. Egun guziez kurutzaten gira Jainko onak daki zonbat herrialdetako-ekin.

Beren seme, senhar ala anaia soldadoen berriak aspaldian ez dutenak, zenbat ez ditugu ezagutzen! Hilak othe dire, ala oraino bizi, Alamanen eskuetan preso? Galde horri nebork ez dezake chuchen ihardets.

Ezen, badakigu, kolpatuak badire, Alamanen eritegieta dagozina, ez dezakete deus berriak egor. Gehienek ezagutzen dugu nor edo nor, b-rltzpasei ilabetheren buruan izkribatu ducenik, bizi dela or

raiteaz, egor dezoten ogi bat aste guziez. Soldado hori Bordaleko eritegi batean da oraino. Ama izan baitzaio ikusten, aipatu dio bihotzmin handirekin zer zaion gertatu.

Gaztiatu nahi etchekoeri, eta ezin oroit, nor ditezken, ez eta ere zoin herrikoak diren!

Bordalatik itzuli denean, ama etorri zait berriekin. Aipatu daut bere semearen bihotzmina, eta galduetuz nezakenez erran, *Eskualdun* gazeten, zer gertuden. Hitzeman diot, eta ene hitzaren atchikitzeko izkribatu ditut lerro hauk. hemen.

Mintzo naizen soldado hori Limburg hirian zen preso.

## UKARE MOTZ

*Eskualduna* egiten dugun lantegitik etxerat nindoalarik arrats hautarik batet, egun zortzi hemen aiphatu izigarrikeriazko solasa langileri emanik eskuerat, eza zezagutzen kazetan, buruz buru egiten dut Frantzia beheretar soldado betekin.

Aidhikidea gira; bizpalau hilabethe ditu Baiona hiriko-etteean egin gintuina ezagutzak. Geroztik noiztenka elgar ikusten dugularik hemengo karricketan, so lastatzan gira.

Jau gazte bat, halako guti baitire; hain begiratze onekorik; bizitzen ikasia, bat balinbada; lagunkina; achalez baino are hobea dela barneko mamilz, ager.

Ez delarik ari neñoren begiaren, ez gogoaren hatzemeratet, lehen behaketa elhetarik ezagutza errech, gazte chuchen, garbi, maithagarrenetarik dela.

Gerlaren haize gaichto izigarri botatua bere sor-herritik hunat, etsaiak karrascan jabetu zeanean toki hetaz, hunat jin eta hemen soldadotua, hemengo gazteagoerik erakasten ari da, hetarik andana batekin egun hautarik batez surat joateko.

Eskua tinka eta bethi, luze edo labur, elheztatzan gira.

Zer da berri? — On eta tchar; orotarik. — *Eskualdun*-ean zinen? — Bai, jauna. — Qu'est-ce que vous leur avez raconté, à vos braves Basques? — Orizu aidhikidea, nahi baduzu egia entzun, hola eta hola.

Laburzki kondatzen diot, azkeneko aeman soldado aitzindarien egitatea: nola zion, behin aitamak bere aitzinean hilik, gero bere eskua hil-arazi nahi ukhan, haur bati sarjant frantes kolpatu hil hurran bat, bere barma eskueara emanik, hartaz; eta nola zuen harrak bera hil, ederki merezi bezala.

Badago behin ichil-ichila ene gizon gaztea, niri so begietara. Gero azken hitzeara naizenean, erraiten daut: « Uste duzu eztakigula holako baten berri, behere hetarik hunat ethorriak giren? Adi zazu hau, ez ahotik ahora erabilia, amen-omena. Nihauri gerthatua; edo bederen bi begi hautan nihaurek ikusia; bi nizeno ez baitut ahantziko.

Alemanak gure hirian sartu zirelarik (*Roubaix*-eko niz, dakinaz) oro chehatz heldu ziren, hatzemana hil.

Iduri zaurtzen han gabiltzala, soldadoak tiroka, hilka elgarri; bertzeak lasterka ihesi, ahal ginden zokoetarat.

Aita eta biak ginen, haren ni, nik hura, biziak beiratzen nahiz ibilkia, bata bertzeari besotik lothuak noiz nahi, lanjer gehienetan iduri zitzaukun tokietan.

Oren jbatek bereziki hanche, karrikaz karrika, erabili ginituen itzuliak! Etsiaia bethi gure ondotik, oihuka, hilka.

Hitz dautzut ez ginuela gibelerat behaka dembora luerik galtzen; chichaz ikusteko doi; bethi kasik beren baionet eta sabre odoleztatuak eskuetan, gure ondotik ginituela; kaski orotan bethi hiruetan hogoi bat metre guitarik urrun gorenaz.

Arrren bertze asko itsuskeria laugarraren artean, zer uste zinuke dugula han ikusi, ene aitak eta nik?

Gure aldean, gu bezala, etsaiaren lasterka ihes, joaki, batzu nigar marraskaz, bertzeak izialdurarekin harrituak mutu, joan ahalo joan, sei haur, sei muthiko tipi, seiek eskuineko ukharea moztua.

Behako luze mutu bat biek elgarri, eta bagoazi zoin gure alde.

## A PROPOS DES ALLOCATIONS

Par sa circulaire de Décembre 1914, le Ministre a fait inviter les commissions cantonales, par le Préfet, à ne pas allouer moins de 1 fr. 25 et à ajouter autant de majorations de 0 fr. 50 qu'il y a d'enfants au-dessous de seize ans à la charge effective du mobilisé, en faisant observer que la loi du 5 août 1914 est formelle à ce sujet.

Comme on le voit, toutes les femmes de mobilisés, dont la situation est reconnue nécessiteuse, devraient toucher leur allocation augmentée d'autant de majorations qu'elles ont d'enfants au-dessous de 16 ans.

Celles auxquelles on n'aurait pas donné jusqu'ici la totalité de ce qui leur est dû, doivent réclamer, et le supplément, qui leur sera accordé devra leur être compté à partir du jour de leur demande initiale.

Ce n'est donc plus d'une faveur, qu'il s'agit ici, mais d'un droit qui ne peut leur être refusé.

La loi ayant été ainsi établie, il n'y a qu'à s'incliner et M. le Ministre de l'Intérieur a eu raison d'en exiger, en Décembre dernier, l'application formelle.

Que les intéressés se tiennent donc pour avertis et ne cessent de réclamer devant les Commissions cantonales et d'appeler jusqu'à ce qu'ils soient satisfaits leur soit donnée, et ces commissions seront obligées de leur donner les allocations auxquelles elles ont droit.

Du moment que nous serons appelés un jour, comme tous les autres, à prendre notre part dans cette dépense, il ne conviendrait pas qu'une exception fut faite pour notre Département. S'il est vrai qu'on touche partout ailleurs l'allocation en sa totalité, il serait injuste que les femmes de nos mobilisés ne fussent pas appelées à jouir des mêmes avantages.

Nos soldats, comme tous les autres, se montreront d'autant plus courageux et vaillants qu'ils sauront leurs familles à l'abri des nécessités de la vie.

UN AMI BASQUE.

**Eskual-Heppi**

**BAIONAN.** — Apirilaren lehen arratsalde erditan, hiriko posta handian, soldado batek norapeit igorri nahiz hogo liberako mandat bat, jai dautzu sakelatik bère moltsa; moltsatik 20 liberakoa, eta pausatu mahainaren ezkinan.

Bururen itzultzeko artean ebatsu dio-te, krik, hanchetik.

Omen zen jende frango barne har-tan. Ebasler nor? Berak daki.

Behar du bihotzak ez, mementon huntasoldado bat batez ebatsiko dionak,

Iragan ortzegunean, bi langile hargin erori dire Semenario Handi berriaren egitarik.

Ja lehenago erorrik hila bida bertze bat. Oraiko hauk hameka metre goradnik dire biak erori, zangoen azpiko harri batetik huts eginik.

Bati zango bat hautsi zaio; halere sendatzekotan da.

Bertzea, kolpez aldichartua, ezin bere baitharazi dute, sobera baitzen zaurthua.

Ortzegun eguerdi irian minhartua, ortizible goizko hiruetan eman du doha-kabeak azken hatsa.

Basusarritarra zen. Bortz ancia edo lauetzera, koimat bat bertzalde, azkena eta gaitezte, egun hautan gerlarat joateko; bertzeak oro ja han.

Gerlari aski bazagon harentzat he-men.

**ANGELUN.** — Bospasei hilabethe, hunant berririk igorri ez duen soldado ezkondu baten emazteak ukana du haur bat, bi zangoak aitzin-gibel, makur; ber-naz bizi karana omen. Sei hilabethe irian chuchen ahalko daizkotela, esprantza omen da. Anharterean etzuen amak deusen beharragorik.

**AHURTI.** — Urthe guziez herri hor-tan *Pazko* aste ortziralean egiten duten merkatua izanen da heldu den aphyrilaren 9an.

**AINHOA.** — Duela zembeit egun guardet bahitzen zuten *Ainhoa*-ar bat, kontrabandaz bi untzi *alcool* zeramatza. Khario gosta zaoi español izpiritua: hamaborthz egunen itzala eta sei ehun eta hogoi ta bortz libera.

**MUGARRE.** — Hamabortz urthetako nechikatcha batek bere nausi zaharra salatu du, balinbazuen eta ez basuen zer erran. Gerthatzen dena gertha, halako zeretan basterrekoak ichilik ego-tea hobe. Gauden beraz.

**DONAPALEO.** — Joan den astean hiri hortako ospitalean sartu dire hogoi soldado kolpatu berri.

Un brave reçoit la Médaille militaire

Notre compatriote l'adjudant Jean Espagne, fut blessé aux Eparges, le 19 février.

Gravement atteint à la tête, il fut transporté à Marseille, et admis dans l'Hôpital de la Croix-Rouge.

Les soins empêtrés qu'il y reçut réussirent à rétablir sa santé.

Mais la conduite héroïque dans tous les combats auxquels il participa valut à l'adjudant Jean Espagne une citation à l'ordre du jour de l'armée et la Médaille militaire.

C'est à la remise de cette médaille si envie, que le général Servières, gouverneur de Marseille, a voulu procéder lui-même officiellement.

Accompagné du général Bailloud, qui, de passage à Marseille, avait tenu à assister à cette cérémonie, le général Servières prononga un éloquent et patriotique discours, dont nous sommes heureux de reproduire les passages essentiels que voici :

Adjutant Espagne,

Un jour, peu éloigné encore, au pays lorrain, au ciel un peu bas, de gris estompe, vous commandiez une section dans une batterie de 75, avec cette tranquille assurance des sous-officiers d'artillerie qui caractérise leur moral et amène des résultats.

Un obus allemand a éclaté en avant de vous, vous a pris dans sa gerbe et vous a causé une grave blessure. Services antérieurs, belle tenue au feu, blessure la coupe était pleine, la Médaille militaire résultait de l'imposition; la voici.

Ne la recevez pas, ainsi qu'on le dit parfois comme une simple récompense ou comme un adoucissement aux souffrances endurées; mais, puisque vous êtes un homme de cœur, comme un aiguillon dans votre marche vers les sommets de la vertu militaire.

De chaleureux applaudissements soutiennent ces émouvantes paroles

Toutes nos félicitations au nouveau médaillé, et à sa famille, qui a le droit d'être fière du lustre qui rejaillit sur son nom

**SOHUTA.** — Marchoaren 31 an herri hortako elizan, zerbitzu bat eman dute *Louis d'Etcheverry* zenaren ohoretan. Gerlaria joana zen jaun hori *sergent bezala*. Han hil da martxoaren hamalauean. Hogoia ta zapzi urthe zituen. Ederik ohoratu dute herritarrek *Louis d'Etcheverry* jaunaren heriotze ederra.

**Jules MONDRAN** zenaren jetcheak jakin-arazten du oihaleriaz harren ganik ar direnei orai arte, bezala atchikiko duela negozio bera.

Jules Mondran zena baithan orok zuten konfianzia jarraik dakiotela han-ren ondokoeri.

## GILEN ANTEKRISTA

Badakizue nor den Gilen antekrista? Zango puntzen gainean, doa brista brista. Sahetsetik diñihan dauka largabista, Ohartu gabe, nunbait, ez dezaten sista.

1.  
Zahartu da gizona; ilea zuritu; Beharier zaiotze hitsa idiritu. Zintzurreko min hora zaionez zauritu? Bethikotz oraikotik othe den eritu?

2.  
Uste, bainan ez garbi barnetik golkhoi; Noiz nahi mihiak du zeruko Jainko. Iasbedi, has karakan, ikhertzen choikoa Zikinkeriaz zalo betheko mokoia.

3.  
Parisen agertzea zonbat lukan maite, Errabiaren handiz, ezin erran daite: Arteka batetarik sartzu bezen fitx, Soldadoz ekhar lio hiri baten bethe.

4.  
Orotarik gathena ezin hautsizkoa, Zilhatzeko atxeka, nun kausi chokoa? Atho hoi hetsiz geroz, zaintzen dagaokoa, Ez baitukete behin eskratzeko.

5.  
Bilkhuran batzuk eza, bertzeak aldi batz, Nork daki zeri buruz dagon hor etsaia? Odolez ichuri du jadanik ibaia, Ahulduz geroz, nola irabaz garhai?

6.  
Goratzeak utzirik, aphaltzen has zaite. Sobera hantu dena, nerork ez du maite. Igel bat hampa dadin idzi batet bethe Sosegurik ez dnke zapart egin arte.

## Ziberoan

### PAUE

Pau-terrak, nahiz egun larri diren, Hatzarran artzain gaizo batzu ziren. Negian bazagotzen hor, Erriberetan, Udan bizi ziren bortu goreneta.

Hain mendu behi eta ardi salduak Etziradian arauz noula nahikouak? Bazisten ja hurrun heltzen den omena. Ukitetako ihoun zikir gizena, Egun hiria den gune zabalian,

Erostunak tratu egin behar zian. Nouren nahi artian heltzen alahto batek Biekachgouak pizten dianzerbait kouein

[ta], Hartu zien chede bat Pauko artzañek, Bai eta bermatu hitz bera ororek:

« Uhain berririk jin ez dakigun sari, « Alhagu hesietai behar dugu jarri ». Beren makil zouria berhalik harturik. Mugaz muga hourak lurrian sarthurik, Eremu nasai bat zien zedarristatu.

Eta beren olhak hartzan herrokatu. Horra hastapena. Ikhous orai Pau; Gora jounik da, ez da egun prae.

Hume bat denian mundiala jiten, Odol garbi bada ounta tsuha de jeikiten, — Pauk utzi zain behinkoz arthaldia, Eta haatik badu orano kotchia.

MARKO AFRIKEÑA

Nourbaitek izkiribatu deit, ez dut erranen ourk, — izkiri bazaliak ez beitu emaitzen izenik, eia zer bilhakatu den Marko Afrikeña.

Ene beitan egin dut, huts edo kausia, eta ez nuko nahi ihourk jakin dezan zer jin zaitan gogouala, zounbait neskatala berantiar othe denez Markoren berri galthergia.

Hori hala balitz, erran niroke gaizouari ez diala hoherik amets egitia.

Markok, soldado zerbutchik jin zetarik, 46 ourthe zutian, zaharregi ederien zian bere buria eskountzeko. Aleta ordian ailletzen zen eta zainhart; zazpi hilabete igaran dutu gerlako buru burian; Gilen beltzen soldadouetarak zounbait kalitua du tiroka eta baioneta zistaz.

Bena bera ere kolpatutu izan da; zankho bat galdut da, eta haren ordari badu egun zour makila bat. Ouste duzie orai badiala ezkountzeko gilkarik?

Ez eta den gutieta.

Zankhoaren dolak azkarkitto jo du Marko. Era uduri du beste dolu batetik oroboro habitoa zaurtzen derola.

Zer? zion Markok bere azken letoran, hainbeste igaran ondouan ez dut ikhousi behar Aleman barbarouen lasterra Franziako armaden aitzinian? Zer? Ez dut egun ahal ukhenen Berlin-erako bidajia?

Denbora luze gabe Frantzak tropak eta hainen lagunak Alemaniako lurretan izanen dira, eta nik utzuli behar ukhenen dute ene chokoualat, Berlin-erat buruz abiatzeko orde.

## THIERY AÎNÉ & CIE BAYONNE

### Ouverture de la Saison PRINTEMPS-ETE

Gurekilakoa orai arte ja daukaten guzieri jakin-arazten diotegu, etche hantun hatzemanen dutela, nahiz gerla egunetan guren, edo zoin zer behar duketen guzietarik asortimendu osoa.